



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean

Baldintzak:

- 1 Ikastaroa, bereziki, Euskadiko Justizia Administrazioako karrerako eta bitarteko funtzionarioentzako zuzenduta dago, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan aktiboan daudenentzako; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu. 300 plaza. **Ez du lan-poltsetarako balio.**
- 2 AUTOMATRIKULA: Epea argitalpenaren egunean bertan irekiko da (**ostailaren 6an**) eta **ostailaren 18an** itxiko da **goizeko 09:00etan**.

- [Emakumeen Aurkako Indarkeria online izen ematea](#)

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

- 3 Otsailaren 27an, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsonei, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne.**
- 4 IKASTAROA: **Otsailaren 27an hasiko da, 14:00etan, eta martxoaren 16an amaituko da, goizeko 09:00etan.** Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
- 5 Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta modulua behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
- 6 Egitaraua:
 - a. Genero-indarkeriaren arloko sentsibilizazioa.
 - b. Emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegiak eta genero-indarkeriaren aurkako Estatu-ituna.
 - c. Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiak. Eskumena.
 - d. Espezialitate prozesalak.
 - e. Babes penala.
- 7 Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.
- 8 AZTERKETA: **Martxoaren 17an, 14:00etan**, irekiko da azterketa online egiteko epea, eta **martxoaren 25an itxiko da, goizeko 09:00etan**.
9. Gainditu dutenek diploma jasoko dute **"Nire karpeta" -Euskadiko Sare Elektronikoa-atalean**.